


G O I E R R I

Goierriin gaur egun diren etxalde gehienak XVII. mendean ere hantxe ziren. Auzo honek aldaketa gutxi izan du, eta Erandiok auzo horretan gorde du ondoen hizkuntza eta tradizioa. Auzo honen izenak, auzoaren kokaguneari egiten dio erreferentzia goiko herria baita Goierri. Garai batean *Goiherri* h-dun forma idatzi bada ere, toponimian ez da h-rik idazten ahoskatzen ez den eremuetan, Bizkaian esate baterako, eta hori dela-eta idazkera egokia **Goierri** dugu, Euskaltzaindiaren gomendioei jarraituz.

Goierri sei azpi auzotan banatu dezakegu: **Martiaritu, Arondo, Mota** (garai batean **Agirregoitia** izenaz ezaguna), **Demosti, Ugarte** eta **Meso-lkatza**.

La mayoría de los caseríos que existen actualmente en Goierri ya se encontraban allí en el siglo XVII. Este barrio no ha sufrido apenas transformaciones, y prueba de ello es que constituye el barrio donde mejor se han conservado el euskera y las tradiciones. El nombre hace referencia a su situación, puesto que Goierri quiere decir literalmente "pueblo de arriba". Hay que decir que a menudo se ha utilizado la forma *Goiherri*, incluyendo la h en su grafía. Pero debemos aclarar que la letra <h> no se utiliza en la forma escrita en aquellos territorios en los que no se pronuncia, por ejemplo en Bizkaia, y en consecuencia, la grafía correcta es **Goierri**, siguiendo la recomendación de Euskaltzaindia.

Goierri se puede dividir a su vez en seis barrios: **Martiaritu, Arondo, Mota** (anteriormente conocido como **Agirregoitia**), **Demosti, Ugarte** y **Meso-lkatza**.



GOIERRI

Degoiena (*Degollene*)

Baserrri izen honi dagokion dokumentazio zaharrenari begira 1796. urtean "*Askorra, De Gollena*" forma topatu dugu. Jasotako forma horrek argi uzten du gaztelaniazko "de" preposizioa eta Goiena (gaztelaniazko grafiaz *Goyena*, edo *Gollena* aldaeraz ere idatzi izan da) euskal abizenaren elkarketatik datorrela. Hortaz, euskarazko etimoa duenez gero, euskal grafiaz eman behar da eta **Degoiena** idatzi. Loturik idatziko dugu dokumentazioan nagusiki loturik ageri delako eta horrela ahoskatzen dutelako ingurukoek. Gainera, ele bikoitzaz <ll> idazteak erdarazko "degollar" aditzarekin nahastea ekar dezake, eta hori interpretazio okerra da. Dena dela esan beharra dago Degoiena baserriari **Askorrenaerdikoa** izena ere eman izan zaiola.



En lo que respecta al nombre de este caserío, hemos encontrado la forma "*Askorra, De Gollena*" en un documento datado en el año 1796. Dicho nombre evidencia que se deriva de la unión entre la preposición castellana "de" y el apellido vasco Goiena (en la grafía castellana también puede aparecer escrito en las formas *Goyena* o *Gollena*). Por tanto, puesto que consta de un étimo en euskera, debe respetarse la grafía euskaldun y escribirse **Degoiena**. Además, se utilizará unido puesto que en la documentación consultada aparece mayoritariamente en esa forma y porque así lo pronuncian los vecinos de

las inmediaciones. Por otra parte, la escritura incorrecta con <ll> puede causar confusión con el verbo castellano "degollar", que daría lugar a una interpretación errónea. De todas formas, hay que decir que al caserío Degoiena también se le ha denominado con el nombre **Askorrenaerdikoa**.

Gobelaerrota (*Gollurta*)

Dokumentazio zaharra arakatzea ezinbesteko lana da leku izen askoren jatorria topatzeko. Badira Erandion hainbat eta hainbat izen, desitxuratze handia izan dutenak, esaterako Goierriko *Gollurta* izeneko baserri-errota zaharra. Idatzizko dokumentazioan **Gobelaerrota** izena ageri zaigu behin eta berriz 1600. urteaz geroztik (etxe hau beraz XVI. mendekoa da gutxienez).

Gracias a la documentación histórica podemos establecer el origen de algunos nombres de lugar que han sufrido una gran desfiguración a lo largo del tiempo. Uno de esos ejemplos lo tenemos en el barrio de Goierri, precisamente en el viejo caserío-molino de nombre *Gollurta*. Así, en la documentación escrita aparece profusamente el nombre **Gobelaerrota** desde el año 1600 lo que nos indica que este caserío data, al menos del siglo XVI.



Askorbeaskoa (*Askorbeko, Askorrosko*)



Ahoz *Askorrosko* edo *Askorbeko* izenaz ezaguna den arren, baserri honen jatorrizko idatzizko era osoa **Askorbeaskoa** da. Inguruko baserri multzoa da **Askorra**, baserri multzo honetakoak dira: **Askorbeaskoa**, **Askorraurrekoa**, **Askorraosteinkoa**, **Askortxu** eta **Degoiena** (Askorraerdikoa).

Aunque oralmente se conoce como *Askorrosko* o *Askorbeko*, la forma escrita completa original del nombre de este caserío es **Askorbeaskoa**. Se denomina *Askorra* al conjunto de caseríos de la zona que estuvo compuesto por los siguientes edificios: **Askorbeaskoa**, **Askorraurrekoa**, **Askorraosteinkoa**, **Askortxu** y **Degoiena** (Askorraerdikoa).

Etxatxueta (*Itutas*)

Bitxia da Goierriko **Etxatxueta** izeneko etxalde-izenaren desitxuratzea. Bertakoek *Ituta(s)* edo *Etxuta* esaten diote. Ahoz erabiltzen den forma hori, forma osoaren laburdura argia da. Oso baserri zaharra da, baina gaur egun aurriak baino ez daude Ugarte auzorako bidegurutzean.

Es igualmente curiosa la deformación del nombre del caserío **Etxatxueta**, también en el barrio de Goierri. La gente del lugar denomina esta casa *Ituta(s)* o *Etxuta*. Esa forma oral es claramente una abreviatura de la forma completa. Se trata de un caserío muy antiguo, del cual solo quedan actualmente las ruinas en el cruce del camino hacia el barrio de Ugarte.



Martiartu



Erandioko auzo zaharra eta deitura ezaguna dugu **Martiartu**. Koldo Mitxelena hizkuntzalari entzutetsuaren ustez, Marti(n) izena eta i(g)artu hitzaz osatua dago. Erandion bertan badira antzeko toponimoak, **Lopeigartu** esate baterako. Ahoz *Martu* esaten diote Goierriko auzo zahar honi, euskarazko fenomeno fonetikoari jarraituz, hau da, antzeko bi silaba bata bestearen ondoan daudenean bat desagertu egiten da. **Martiartu** izenean errepikatzen diren silaba biko bi forma oso agertzen zaizkigu: <arti> eta <artu>.

Es un entorno vecinal muy antiguo y un apellido conocido. A juicio de Koldo Mitxelena, prestigioso lingüista vasco, está compuesto por el nombre *Marti(n)* y la palabra *i(g)artu*. Existen otros topónimos similares en Erandio, como por ejemplo, **Lopeigartu**. Martu es la forma oral más común para designar a este viejo barrio de Goierri, cumpliendo un fenómeno fonético común en euskera, esto es, cuando existen dos sílabas similares una al lado de la otra, una de ellas desaparece. En el caso del nombre **Martiartu**, aparecen dos formas completas similares compuestas por dos sílabas: <arti> y <artu>.



MARTIARTUTORREA

Goierriko etxaldeak mendez mende Caseríos de Goierri a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES

Agirregoitia *	Izardui
Arondo	Kristobalena
Arondoaurrekoa	Libao(atzekoa)
Arrigunaga *	Libaoaurrekoa
Askorbeaskoa (<i>Askorrosko</i>)	Markoena
Askorraurrekoa *	Martiartugoitia (<i>Martugoiti</i>)
Beaskoerota (<i>Beskorta</i>)	Martiartutorrea
Bolua (Boluntxu) *	Martiartuzarra (Martuzarre)
Demosti(bekoa)	Mesobekoa (Mesoatzekoa)
Demostigoikoa	Mesokotorre
Demostiostekoa (Demostierdikoa)	Mesozarra (Mesoerdikoa) (<i>Mesozarre</i>)
Etxatxueta (<i>Itxuta</i>)	Miragaia (<i>Mirigi</i>)
Gobelaerrotia (<i>Gollurta</i>)	Miragaia * (beste bat)
Goiri *	Morteru
Ikatzaerdikoa	Mota
Ikatzaosteikoa	Motagana
Ikatzaurrekoa	Peñas

XVIII. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XVIII

Agirregoitiaetxebarria *
Arondosteikoa
Askorraosteinkoa (erdikoa) *
Askortxu
Aurrekoetxe
Degoiena
Demostiaurrekoa
Felipena (<i>Filipene</i>)
Libaoerdikoa
Mesoena (<i>Mesone</i>)
Santutxu (San Kristobal)

* DESAGERTUTAKO ETXALDEAK / CASERÍOS DESAPARECIDOS

(Demostierdikoa) SINONIMOA

(*Martugoiti*) AHOZKO ERA / FORMA ORAL

Goierriko etxaldeak mendez mende Caseríos de Goierri a lo largo de los siglos

XIX. MENDEKO ETXEAK	XX. MENDEKO ETXEAK		
CASAS DEL SIGLO XIX	CASAS DEL SIGLO XX		
<p>Areatxu Demostiaurrekoa Izarduiazpi * Loiumendi * Moroena * Motabarri Pozozabaleta *</p>	<p>Aizeona Barrenabaso Bidegana Bideondo Biona Degoienabarri Demostitxikerra Desengaño Eguzkieder Goikoetxebarri Goikolanda Goiribarri Gorritxuena Gure Arte Ibarburu Ibarzana Ibarroste</p>	<p>Ikastolarte Ikatzabarri Ilargiren Kabia Iturrondo Larresibarri Lubarrieta Martinetxebarri Martintxuena Mendigorri Mesobarri Olabeiti Peñaurrekoa Pinubeko Santutxubarri Sendiaga Solobarri Ugartebarri</p>	<p>Urederra Urgitxiburu Urtegana Zubigana</p>